

RESOLUCIÓN 1/2018, de 22 de enero

1/2018 EBAZPENA, urtarrilaren 22koa

PRESIDENTA: MARIA BARRENA EZCURRA  
VOCAL: AMAIA ZURBANO-BEASKOETXEA  
LARAUDOGOITIA  
SECRETARIO: IÑIGO ALVEAR LEKUE

BATZORDEBURUA: MARIA BARRENA EZCURRA  
BATZORDEKO KIDEA: AMAIA ZURBANO-  
BEASKOETXEA LARAUDOGOITIA  
IDAZKARIA: IÑIGO ALVEAR LEKUE

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha pronunciado la siguiente RESOLUCIÓN en la reclamación formulada por D. **XXXXXXXXXXXXXXXXXX**, habiendo sido designada ponente Dña. Maria Barrena Ezcurra, quien expresa el parecer de la citada Comisión

Goian adierazitako kideek osatutako Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasuneko Erreklamazioen Batzordeak EBAZPEN hau eman du **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak aurkeztutako erreklamazioaren inguruan (Maria Barrena Ezcurra andrea izan da izendatua txostengile eta berak adierazi du zein den batzorde honen iritzia)

#### ANTECEDENTES DE HECHO

#### EGITATEZKO AURREKARIAK

Primero.- El 1 de octubre de 2017 D. **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** presentó en el Registro General de la Diputación Foral de Bizkaia, un escrito en solicitud de información referente a "(...) *Herramientas electrónicas que utiliza la Diputación Foral de Bizkaia para la tramitación telemática de solicitudes y expedientes según las leyes 39/2015 y 40/2015 (...)*".

Lehenengoa.- 2017ko urriaren 1ean, **XXXXXXXXXXXXXX** jaunak honako honi buruzko informazio-eskabidea aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean: "(...) *Bizkaiko Foru Aldundiak espedienteak eta eskaerak izapidetzeko erabiltzen dituen tresna elektronikoak, 39/2015 eta 40/2015 legeen arabera (...)*".

Segundo.- El 3 de octubre de 2017 el Gabinete de Modernización, Buen Gobierno y Transparencia informó al Sr. **XXXXXX** en cumplimiento de lo previsto en el artículo 21-4 y concordantes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre,

Bigarrena.- 2017ko urriaren 3an, Modernizazio, Gobernamendu On eta Gardentasunerako Kabineteko buruak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21-4



de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, de las siguientes cuestiones:

"(...) ⊕ Departamento Foral responsable por razón de la materia: Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

⊕ Dirección General competente: Dirección General de Modernización de la Administración.

⊕ Idioma de comunicación: castellano.

⊕ Vía de acceso a información: sede electrónica

⊕ Plazo máximo para resolver y notificar: quince días a contar desde el siguiente al del registro de la solicitud.

⊕ Efecto del silencio administrativo negativo (...)"

Tercero.- Con fecha de entrada 30 de octubre de 2017, el interesado interpuso Reclamación ante esta Comisión en la que indicó que: "(...) no ha recibido la respuesta después de los 15 días que señalaba la notificación de comienzo de tramitación, que contaba el día 1 de octubre como fecha de registro de la solicitud y cómputo de plazos (...)".

Cuarto.- El 6 de noviembre de 2017, el Director General de Servicios, Relaciones Municipales y Emergencias dictó resolución dando contestación a la petición de información solicitada.

La resolución fue notificada a D. **xx** **xxxxxxxxxxxx** el día 8 de noviembre de 2017, mediante el acceso a su contenido en la sede de la Diputación Foral de Bizkaia.

Quinto.- De conformidad con lo

artikuluari ezarritakoa betetzeko, gai hauen inguruko informazioa eman zion **xxxxx** jaunari:

"(...) ⊕ Gaia dela-eta arduraduna den foru saila: Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila.

⊕ Eskumena duen zuzendaritza nagusia: Administrazioaren Modernizazioarako Zuzendaritza Nagusia.

⊕ Komunikazioarako hizkuntza: gaztelania.

⊕ Informazioa lortzeko bidea: egoitza elektronikoa.

⊕ Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea: hamabost egun, eskabidea erregistroan sartu eta biharamunaz gero zenbatuta.

⊕ Administrazio-isiltasunaren ondorioa (...)"

Hirugarrena.- 2017ko urriaren 30ean interesdunak erreklamazio bat aurkeztu zuen Batzorde honetan; bertan honako hau adierazi zuen: "(...) izapidearen hasieraren jakinarazpenean aipatzen zen 15 eguneko epea, urriaren 1ean hasten zena eta epeak zenbatzeko balio zuena, egun horretan sartu baitzen eskabidea erregistroan, amaitu eta gero (...)".

Laugarrena.- 2017ko azaroaren 6an, Zerbitzuen, Udal Harremanen eta Larrialdien zuzendari nagusiak eskatutako informazio-eskariari erantzuten zion ebazpena eman zuen.

2017ko azaroaren 8an jakinarazi zitzaion ebazpena **xxxxxxxxxxxxxxxx** era jaunari, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitzan jaso baitzuen ebazpenaren edukia.

Bosgarrena.- Administrazio Publikoen



establecido en el artículo 82 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el 11 de diciembre de 2017 la Presidenta de la Comisión remitió un escrito en el que se decía:

*"(...) dado que la reclamación ante esta Comisión fue planteada con anterioridad a la resolución que ha dado contestación a su petición, le habilitamos plazo de DIEZ DIAS HABILES para que manifieste si considera que su solicitud de información ha sido contestada, y en consecuencia procede el archivo de la reclamación planteada, o si por el contrario entiende que la resolución emitida no da contestación a la información solicitada, exponiendo las razones de su disconformidad para que esta Comisión continúe con la tramitación de la reclamación, dictando resolución sobre la misma.*

*En caso de no recibir contestación en el plazo de diez días, procederemos al archivo de la reclamación formulada (...)"*.

La comunicación fue notificada al reclamante el día 12 de diciembre de 2017, mediante el acceso a su contenido en la sede de la Diputación Foral de Bizkaia.

Sexto.- No consta en el Registro General de la Diputación Foral de Bizkaia que el Sr. **xxxx** haya contestado al requerimiento efectuado.

#### FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.- La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea, ex artículo 27, por la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la

Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, 2017ko abenduaren 11n, batzordeburuak honako hau zioen idazkia bidali zuen:

*"(...) Batzorde honetan aurkeztutako erreklamazioa zure eskariari erantzun dion ebazpena baino lehenago aurkeztu denez gero, HAMAR EGUN BALIODUNeko epea ematen dizugu, zure informazio-eskabideari erantzun zaiola adieraz dezazun, eta, ondorioz, aurkeztutako erreklamazioa artxibatze, edo, bestela, bidalitako ebazpenak ez diola eskatutako informazio-eskariari erantzuten adierazteko, zure desadostasunaren arrazoiak azalduz, Batzorde honek erreklamazioaren izapidearekin jarrai dezan eta hari buruzko ebazpena eman dezan.*

*Hamar eguneko epean erantzunik jasotzen ez badugu, artxibatu egingo dugu aurkeztutako erreklamazioa (...)"*.

2017ko azaroaren 8an jakinarazi zitzaion ebazpena **XXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunari, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitzan jaso baitzuen ebazpenaren edukia.

Seigarrena.- Bizkaiko Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean ez da ageri egindako agindeiari **xxx** jaunak erantzun dionik.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea Bizkaiko Gardentasunari buruzko 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikulua bidez sortu zen.

Foru arau horren 29.1.1 artikuluan, foru arau beraren 2. artikuluan xedatutakoari doakionez, dioenez, Bizkaiko Foru Aldundiak eta foru erakunde



competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.

Segundo.- La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, precitada reconoce, en su artículo 18-1, el derecho de las personas físicas y jurídicas a acceder a la información pública, entendida ésta, según el artículo 17-2 de la misma Norma Foral, como: *"(...) cualquier tipo de contenido o documento, independientemente del soporte que se utilice, que obre en poder de las entidades previstas en el ámbito de aplicación de la presente Norma Foral y que hayan sido elaborados, modificados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones (...)".*

Por tanto, la Norma define el objeto de una solicitud de acceso a la información en relación a la que ya existe, por cuanto obra en poder del órgano que recibe la solicitud, bien porque el mismo la ha elaborado o bien porque la ha obtenido en el ejercicio de las funciones y competencias que tiene encomendadas.

Tercero.- El artículo 24-3 de las varias veces citada Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, dice que: *"(...) el plazo de resolución para la concesión o denegación del acceso a la información será de quince días prorrogables otros quince, entendiéndose como desestimatorio el silencio*

autonomoek, foru erakunde publiko enpresarialek, merkataritzako foru sozietateek, foru fundazioek eta foru partzuergoek eta aurrekoen artean aipatu ez diren zuzenbide publikoko beste foru erakundeek informazio publikoa eskuratzeko eskaera oro ukatzeko ematen duten berariazko edo presuntzizko ebazpenen aurka jarritako erreklamazioak ebazteko eskumena Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeari dagokio.

Bigarrena.- Aurretik aipatutako otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauak bere 18-1 artikuluan aitortzen du pertsona fisikoek eta juridikoek informazio publikoa jasotzeko duten eskubidea, betiere eskubide hori foru arau horren 17-2 artikulua arabera ulertuta, honela: *"(...) informazio publikoa da foru arau honen aplikazio-eremuan sartutako erakundeek duten edozein eduki edo dokumentu, euskarria edozein dela ere, erakunde horiek beren eginkizunen barruan egin, aldatu edo eskuratu badituzte eduki edo dokumentuok (...)".*

Hortaz, foru arau horrek informazioa jasotzeko eskari baten xedea lehendik dagoen batekin lotuta definitzen du, eskubidea jasotzen duen organo baten eskuetan dagoelako, berak egin duelako edo berez dituen eginkizunen eta eskumenen betetzean lortu duelako.

Hirugarrena.- Behin baino gehiagotan aipatu dugun otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 24-3 artikulua honela dio: *"(...) informazioa eskuratzeko aukera onetsi edo ukatzen duen ebazpena emateko epea hamabost egunekoa izango da. Dena dela, beste hamabost egunez luzatu ahal izango da. Administrazio-*



administrativo.

*De forma extraordinaria, este plazo podrá ser ampliado en quince días adicionales, siempre y cuando mediara solicitud motivada a la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia y su correspondiente aprobación (...)*".

Por su parte el apartado 5 del mismo artículo indica que frente a la denegación expresa o presunta se podrá interponer, con carácter potestativo, reclamación en el plazo de un mes ante la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia.

El plazo máximo para resolver las reclamaciones, a tenor del apartado 7 del art. 24, es de tres meses, transcurridos los cuáles ésta se entenderá desestimada.

Cuarto.- Ha quedado acreditado que la solicitud cursada por el interesado fue desestimada de manera presunta al haber transcurrido más de quince días desde su presentación sin obtener respuesta.

Sin embargo, una vez formulada la presente reclamación, se dio respuesta de manera fehaciente a la misma. De ahí que la Presidenta de la Comisión le concediera un plazo de diez días para que manifestara lo que considerara pertinente, plazo que ha transcurrido sin que se haya manifestado al respecto.

La información proporcionada se ha facilitado transcurrido el plazo de quince días

*isiltasuna ezestekoa izango da.*

*Aparteko egoeretan, beste hamabost egunez luzatu ahal izango da epe hori, betiere Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeari eskabide arrazoitua aurkezten bazaio eta batzordeak onartzen badu(...)*".

Bestetik, artikuluko bereko 5 atalak dio ukapena ematen duten berariazko edo presuntziozko ebazpenaren aurrean, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar daitekeela, hilabeteko epearen barruan, Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeari zuzenduta.

Erreklamazioak ebazteko gehieneko epea, 24. artikuluko 7 atalean dioenaren arabera, hiru hilabetekoa da, eta epe hori igarota erreklamazioa ezetsizat joko da.

Laugarrena.- Egiatzaturik geratu da interesdunak aurkeztutako eskabidea ustez ezetzatua geratu zela, aurkeztu zenetik hamabost egun baino gehiago igaro direlako inolako erantzunik lortu barik.

Hala ere, erreklamazio hau aurkeztu eta gero, modu sinesgarrian eman zitzaion erantzuna. Hori dela eta, batzordeburuak hamabost eguneko epea eman zion, bidezkotzat jotzen zuena adierazteko, eta gaiari buruzko adierazpenik egin gabe igaro da epe hori.

Eskaintako informazioa otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 24-3 artikuluan jasotako



recogido en el artículo 24-3 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero.

Teniendo en cuenta lo anterior, se entiende que la presente reclamación debe ser estimada por motivos formales.

No obstante, habiendo dado cumplimiento a lo solicitado sin que haya manifestado su disconformidad al contenido de la respuesta y atendiendo a lo indicado en el escrito de la Presidenta de esta Comisión en el trámite de audiencia, procede, asimismo, el archivo de la misma.

Por todo ello, la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia dicta la siguiente

### R E S O L U C I Ó N

Primero.- Estimar por motivos formales la reclamación presentada por ~~XXXXXXXXXXXXXXXX~~

Segundo.- Archivar, sin más actuaciones, la citada reclamación.

Tercero.- Notificar esta resolución al interesado.

Asimismo se comunicará a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia del Departamento Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

La presente resolución, que es definitiva,

hamabost eguneko epea igaro ondoren eman da.

Aurreko hori kontuan hartuta, uste da erreklamazio hau baietsi egin behar dela, forma-arrazoiengatik.

Hala ere, eskatutakoa betearazienez gero, erantzunaren edukiarekiko desadostasunik adierazi gabe, eta entzunaldi-izapidean batzorde honetako buruaren idazkian aipatutakoari begiratuta, aldi berean hura artxibatu egin behar da.

Hori dela eta, Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeak honako hau ebatzi du:

### E B A Z P E N A

Lehenengoa.- ~~XXXXXXXXXXXXXXXX~~ jaunak aurkeztutako erreklamazioa forma-arrazoiengatik baiestea.

Bigarrena.- Artxibatzea, jarduketa gehiagorik barik, erreklamazio hori.

Hirugarrena.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea.

Halaber, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Modernizazio, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiari ere jakinaraziko zaio.

Ebazpen hau behin betikoa da;



agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS MESES a contar del día siguiente al de su notificación.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/98, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

En Bilbao, a 22 de enero de 2018.

Es copia.

administrazio-bidea amaitzen du, eta, beronen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango du, EAEko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta jarduera-araudia onesten duen uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren 27. artikuluan eta administrazioarekiko auziak arautzen dituen jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/98 Legearen 10. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin ados egonik.

Bilbon, 2018ko urtarrilaren 22an.

Kopia da.

Secretaro/Idazkaria

Fdo./Izpta.: IÑIGO ALVEAR LEKUE